


# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## GURE AMA LURRA

# ORBAIZETA, IRATI ONDOAN



Orbaizeta. — (AIDA argazkia).

Arburu mendiarren azpian, Berrendi'ren aurrean, Irati ibal ondoan dago, Aezkoako erri eder eta. Aldapan daude etxeak, gotik asita ibal ertzeraino. Eliza erdian gelditzen da. Etxeak iru kaleatan biltzen dira; eliza ondoan San Pedro kalea, gora mendi aldera Mendikoa ta erri azpian ibal ondoan Rotxapea.

Erritik lau kilometroa, muga aldera ba dago beste auzo koxkor bat, Orbaizetako Ola Ondoa izena duna eta andik eskubira beste bat bizpauru baserriekin Larraun izena duna. Azkeneko ontan, gaineko aldiian ba daude bi baserri oso politak, bat Zabala emen Zumalakarregui'k egonaldi bat egin zuan eta bestea Mendiondo, biak Mendiatil egalean.

Aspaldi, orain dala berreun urtetik joan dan gizaldi arte, garrantzi aundiko burri ola zan emen. Artilleriko bonbak egiten zituzten, baita beste galak, gero Trubiara eramateko. Napoleone gerra ondoan dana berriuta izan zan. Oraindik agiri diru orma zar galantak. Eliza garri artakoa da, gaur belarra gordetzeko daukatena. Eliza berria etxe baten sarreran dago.

Frantzi'ko iraultza garaiako gerratean ta gero karliste'nean, gudako tresnak egiten ziralako ola zarra ontan, erri osoa oso ondutua izan zan.

Erri onek inguru zoregarrik dauka; ezaguenena, Irabia'ko urgedira ondoan bidea, Oriana mendi ondotik igarota. Udazale geienak bide au artzen dute. Arrazola ere ba dute, Irabia'ko inguruak ikusgarriak diralako.

Beste ateraldi eder bat ba dago, oso gutxi ezagutzen dana, bertakoak ezlk. Ola zar auzoko elizaren atzetik ateratzen da

bide mugaraino dijoana zuzenean. Txangoa erreka ondotik dijoan galtzara au oso zarra degu ta gainera Añamendi'ko lepo bidean aldapa gutxiene dau kana, larre toki bikaina gainera. Basoa igaro ezkerre, Azpegi lepora ateratzen da bidea. Kromel galantak ikusten dira bertan; lau eskubitan ta bat ezkerrean. Ba daude an urrutit joan gabe doimen batzuk ta ezker aldera artzai txabolak zuzeko telakkin. Andik dorre zar baten bila Urkulu mendi tonterra igo nintzan. Dorre zar ori ikusi nai nuan erromatarren garaitako ote zan jakitearren, Barzelonako Maluker era kasle jaunkaz adalio.

Larre xee ta zabal artian ardiak millaka dabiltz. Euskalerrri osoan ez dut ainbeste bel te ardi batean ikusi. Azpegira jexti ondoan, mugaraino Idopil izeneko tokiraino urbidu nintzan. Ofitutz joan leike ain gozoa da belarra. Muga ondoan illobi zar bat dago. Aspaldiko larre tokia dala ikusten da. Larre toki auetan dabiltz Orbaizetako ogeita bost artalde ta bost mila ardi. Bel gorrri gorriak, egokiak antxe daga; arraza pirenaiakoa, Diputazioari esker, asko indartu diranak. Joareak lepoan, zurazko kollareakin zerriak zituzten. Artzaiak egiten dituzte eta «kanabla» izena ematen diete.

Orbaizeta erriko eliza, arritzkoa, ederra bizpauru zatitan egina dala egertzen da. Erretaula emozortzi garen gizaldikoa du. Goian Amabirgina oso polita, eskubian Santa Bárbara, San Pedro eserita erdian. Sagrario ondoan ba dauka bi iduri, San Migel ta San Juan, platereskoak, zoragarriak. Elizaren sapaia amasei garren gizaldikoa da nere iritziz. Bataio ponte erromaniko gotiko bitarteko garraikoa. Emengo gazteak lasaitzeko ba daukate eliza azpian frontoi itxia ederra. Eliza atzeko aldean berriz ba dago «horreo» txiki bat. Aezkoan —garai— deitzen diete.

Mendi tonter batean ba daukate maite duten Donestebere'nean baseliza. Frantzi'ko iraultza garaian erre zuten. 1945 garren urtean Lorentzo etxeokoa besten laguntzakin altxa zuten berriz. Urtero igotzen diru meza entzutea ta jota txapelketa egitera. Asko maite dute erri ontan Donestebere; norbait iltzen danean, Dona Mari, San José ta Donestebere itoizta egiten diote.

Danetara ba daude 74 sendi, errian 60 ta bi auzoetan 14; 364 bizilagunekin. Lur sagarrakin bizi modu polita ateratzen dute, gainera artalde ta abelgorriak dituzte. Aragi ta gasna asko egiten da. Mutilak ba daude basoetan lana egiten dutenak, besteak lurhara dijoan lan bila. Erriak, ere, urtero, milloiterdi pezata ateratzen du basotik. Aspalditxo, neska oñetakoak josten lana izaten zuten. Orain lana ori ez dute egiten.

Euskerak zer? Adinaiko danak ba dakite. Elizagari etxean egon nintzan eta dana euskeraz egiten genuen.

Ei aiton amon zarrangana joan nintzan berri bila. Konde etxeokoa baita, José Garbia; larogei urtekin, gazorik oian zegoen. Zeinen euskera garbia egiten duan.

Bera oroitzen da nola amabi urte zitula utzi zuan apaizak, itzaldiki euskeraz egiten. Kriau ikasbidea beti erderaz ezagutu zuan. Berak 15 urte zitula, azken garizuma euskeraz egin zala. Gaur oraindik gizon oneko pozik entzuten du irratiatik Arantz-



«Ola-ondo» Auzoz (Orbaizeta). — (AIDA argazkia).

zuko euskal meza. «Eie berdinak entzuten ditut'io berak. Asko gaitzen dute emengo gazteak euskeraz ez jakiteakin. Erriko 25 artzaiak urtero lpar aldeko Euskalerrria dijoaz. An ikasten dute ongi euskeraz Konde etxeokoa aizona gaztea zala Linzoain'go txistularia jaietan entortzen zan eta berak lau urtez tuntuna jotzen laguntzen zion.

Amona bat ere ikusi nuen, Felisa Eguize Jakue. Bere bilobei euskeraz erakatsi zien. Bainen eskolan asterakoan, «burla egiten zien euskera elikatzen zutelako». Ori aipatzeakin bakarrik, mina artzen zuan.

Gerra Aurretik, bertako jantziekin ateratzen ziran gazteak, Eguberritan euskeraz kantari. Geroztik aztu dute kanta zarra ori. Akeneko gerra ondoan, oso giro txarra sortu zan. Eltzetzo, soldadu ta baso mutil artotzak euskera gaizki ikusten zuten; bertakoak beldur aundia jakina.

Elizan berriz aspaldi emen zioten ostikoa euskerari. Euskerazko kantak ez omen dituzte beln ere ezagutu.

Oraingo apaiza ez da euskalduna, ezta ere naparra, kastellanoz baizik (Avila'koa). Ikasi ditu itz batzuek euskeraz. Esaten zidan: «Itz oiek ezutzen dituztenean, biotza zabaltzen zala».

Principe de Viana, euskal aldizkaria banatzen dio. Batek ala zion: «Inork ez du iraburten». Itxaro gabe, zoragarri bat izan nuen. Bi etxetan biltatu nituen egitako euskaldunak, oso ondo mintzaten diranak. Bat alkatearen etxea, Merino etxea. Emen aur txiki gutziak ba dakite ondo asko. Bestea Lorentzo etxea. Emen 17 urteko neska batek, Lurdes Zabala'k Zabalegi nekazari eskolan bi urte egin ditu. Maite du Euskalerrria, euskera batez oro. Bere aita pozik dago. Etxea ortik ateratzean, nion: «Nola leike orrelako neska euskalduna emen uztea, aztua bezela? Uste dut Aezkoako muturrean, Añamendiko zulo ortan orrelako neska bat, oso kapitala aundia dala Euskalerrriarentzat. Lagundu ezkerre, neska onen bidez, Orbaizetan euskera berriz pixtu leike.

Nafar ikastola batek artu bear luke neska ori bere gain, Diputazioaren laguntzarekin eta orrela bere eziketa egin. Ezin da gero, ain erraz esan orrelako tokitan euskera galdu da. Ta euskaldun jator bat dagonean ezin zaio utzi ez ba lego bezela Nork emen deaioke aukera bat euskerari Orbaizetan?

Etxe batzuen izenak jaso ditut. Ezin ukatu nortasun aundikoak dirala: Arriola, Alzat, Jokue, Azpitx.

LATXAGA

## Iruñean Euskaldunentzako Euzkerazko Eliz - Lana

Orai dela urte batzuek, Iruñean, Eliz aldetik, euskeraz lan piska bat egiten asi zen. Gauzak onerat eman zuten, eta ala, gaur, Jai egunetan lau Meza euskeraz, baditugu.

Ori zerbaiz izanik ere, alegia, infindiki ere ezda asit. Elizan lana ezda Meza bakarrik bukatzen. Elitzak, beste gauz asko baditu kristauen onerako egin bearrak:

Juan diren urte otan, gauz ontan lanian ari diren apaiz eta erriko batzuen iduria entzunik, eta baita ere, Iruñeko Apaiz-buruen baimenarekin, gure Gotzai Jaunak, Eliz lan unetan, aurrerapen bat ematia erabaki du, beraren bearn berretu dela ikusirik.

Orretarako erabaki du, alde batetik Eliz serbitzuko berretzea eta bestetik, Eliz barrutiko lanetan ogeto osatze bat.

A) ELIZ SERBITZUAK BERRETZEZA  
Orai artio, Mezako lana bakarra egiten da. Sinisten dun gutzietari adierazten zela, gaurtik aurrera, beste edozein Eriluzetan bezelaxe, nai dituzten beste gaierakoak ere, emen eskatzen al dituztela: Batario, Lenengo Jaunartza, Ezkorta, Hkizunak, gaisoen laguntzak, eta abar... Baita ere Sakramentu oien prestatarako etxetan, gaur Elitzak oitara duen gisara.

B) ELIZ-BARRUTIKO LANETAN OGETO OSATZE BAT  
Orai artio, lan au, beste lan askotan dabiltzen apaizak egiten dute. Emendik aurrera, Bikal-aldiak, lan au, arnas bere gain artzen du Euskal-aldeko Ordezkararen eskutik. Onek biltatuko ditu, lana berretu alain, denboraz biltari diran apaizak.

Gauzak ogeto joateko, lan ontan gelan sartuak diren apaiz eta erriar batzuekin Batzarrea egingo da. Eliz lan unetan ardua duten talde guziren ordezkoak Batzar ontan biltzea, bearrakoa da. Orngatik, lein bai len, ikusiko da nola erditxi leiken, alik eta ogetuena, erri talde guzian iritxia.


Bitartean, mementoko Batzar bat, bitarteko lanak egiteko, berezi da.

Zerbaiz Eliz serbitzu nai duenak, deitu: Urrutizkaria 231978. Bertan, egunero, arratsaldeko 8'tik 10'tara, denan delako artzoko neskatza bat zai egongo da.

Berdin joan nor bera lan-toki edo «despatxo» ortan, ordu oietan bertan (González Tablas, 6.1.).

Iruñeko kristau euskaldunen artean, Eliz lan ontan ematen den garrantzi aundiko aurrerapen onek, dakarrala berekin, egizko batasuna eta sinisimen bizkortzea.

Iruñean 1972'garreneko, marxoan, Euskal-aldeko Gotzaiaren Ordezkarik, Iruñeko'tar Juan Bautistak



Hace ya unos años que comenzó una pastoral en euskera para los «euskaldunes» en Pamplona. La experiencia ha resultado positiva, y hoy tenemos la realidad de cuatro Misas que se celebran en euskera en la ciudad, los días festivos.

Pero a todas luces esto resulta insuficiente, porque ni pasa de una mera celebración cultural, sin otra proyección ni atención pastoral.

Escuchados los sacerdotes y seglares interesados en esta pastoral durante estos años pasados y recabado el consentimiento de los señores Arzobispos y Secretarios de los Arzobispados de la ciudad, el Arzobispado de esta Diócesis ha creído conveniente dar un paso más en esta atención pastoral, teniendo presente la creciente necesidad de la misma.

Por eso se propone darle, por una parte, una mayor amplitud de servicios pastorales, y por otra, una mayor integración en la Pastoral Diocesana.

A) UNA MAYOR AMPLITUD DE SERVICIOS PASTORALES  
Hasta ahora sólo se dan las Misas. En adelante, se pone en conocimiento de todos los fieles que lo deseen que pueden contar también con los otros servicios que les prestan sus Parroquias: Bautizos, Primeras Comuniones, Bodas, Funerales, asistencia a enfermos, etc., así como las catequesis familiares preparatorias a estos Sacramentos, conforme lo requiere hoy la Pastoral de la Iglesia.

B) UNA MAYOR INTEGRACION EN LA PASTORAL DIOCESANA  
Hasta ahora esta Pastoral la están ejerciendo unos sacerdotes que están dedicados a otras muchas tareas pastorales. Desde ahora este servicio va a correr a cargo de la Vicaría de Pastoral, que se responsabilizará directamente, a través del Delegado de Zona Vasconparlante, quien pondrá al servicio de los fieles los sacerdotes que requiere esta Pastoral más amplia.

Para el buen funcionamiento de toda esta Pastoral, se piensa en la creación de un equipo, formado de sacerdotes y seglares interesados en dicho servicio Pastoral.

Es preciso que formen parte de este equipo personas representativas de todos los sectores «euskaldunes» interesados en esta Pastoral. Se estudiará la forma de llegar a ello, a través de una adecuada consulta a los fieles. Mientras tanto, se designa una Junta provisional, que vaya resolviendo los problemas más urgentes.

Para toda clase de servicios que deseen solicitar, pueden llamar los fieles al teléfono 23 19 76, en donde les atenderá una secretaria todos los días, de 8 a 10 de la tarde. También pueden acudir personalmente a dicha Oficina-Despacho, sita en González Tablas, 6.1.

Es de desear que este nuevo paso, importante, en esta Pastoral se aproveche en orden a una cada vez más auténtica comunidad de creyentes entre los «euskaldunes».

Pamplona, marzo de 1972.  
El Delegado Episcopal de Zona Vasconparlante,  
JUAN BAUTISTA IRAZOOQUI

Kaliterik handiena ekartzen; guharen lotsak ematen trabarik pizuen. Gure arteko tira-bira ergelek daukute makur izigarriena egiten. Eztabala eta asarre ergel horiek, Pariseko jaun handien jokoak egiten dute, bainan guretzat deus onik ez.

Euskal zerezu ilun dago eta bizkitartean ezgara lotsatu behar, ezdugu etsitzeko eskurik; gure lotsak eta gure etsipenak baitute prezikiak zerezu iluntzen. Euskaldunak euskaldun gisa biziko gara, egiazki hala nai baldin badugu; gure bizinaila sanoki erakusten badugu, zerbaizetara elduko gara.

Iratzar galtezin beraz, atzar teno deno; mundu zabalean ikus dezaten ezdele gaur euskal izaltearen hil mezipera, bainan bai eskual udaberria baten abiadura. Jaiki, jaiki, euskaldunak, argi ez bada oraino zabala. Zere lanotsu da, bainan edoi itsusi horiek oro, gure indarrek barretzen ahal ditu. Zinez, hala nai badugu segurik.

Batzera berritzen ari da, berria hor da, jaiki, jaiki, etxenkuak... gau beltzari ez beha, bainan bai izarreri...

Ez gaiten sobera heieri mendek; gure etsairik txarrrena gure baitan dugu; guharen epeltasunak dauku

Etia hemen tokian ditugun haien ordezkariek, xede oheremekin ere, gure eritasunen araberako sendagailurik ez daukute segurtatzen ahal. JAIKI, JAIKI...

Ez gaiten sobera heieri mendek; gure etsairik txarrrena gure baitan dugu; guharen epeltasunak dauku

Horiek alde batetik; bestetik gure euskal izaltea ahultzen ari; bizkitartean, debaldetan dugu euskaldun izena bigaratu, euskal izaltea ukatzen badugu.

Gure mintzaira galtezen «ari, gure euskaldungoaren funtsa ttiputz joaki. Bazteretan, gure nortasunak ezto guti; funtsean, bestek nola izan dezakete holako axo-

lari, guhar girelarik sail hortan hain ezazol eta zukur? Bai, euskal geroraren zerezu, lan ilunegiz brokatua ikusten dugu...

Urrungo igandean ezaguneraziko den «Euskal Meza» hau oso famatua da. Aita Barturen izan da bere sortzailea eta egilea. Abenduko lehen «euskal orri» gainera Oberena Elkargoa eta n dantzariak, eta Chantrea'ko kantari ariko dira.

Ikusgarria benetan izango da eta uste dugu Iruñeko herriak aurpegi on eta goxoa jarriko dio. IKUSLE

# EUSKALERRIAN BARNA

## Mikel Arbea'ren euskal diskoa

Mikel Arbea Iruñeko semea dugu. Kantari gazte ona da. Orain lau euskal kantuz osotutako disko bat atera berri du.

Euskal disko hontan grabatuak dauden lau euskal kantuek hauek dira: EUSKAL MENDIETAN, BAKARDADEA, HERRI MAITEA eta EREITEN DUENA.

Mikel Arbea abots on baten kantaria da eta uste dugu bere disko honek sailmentua haundia izanen duela.

Arbearen nahikeria da bere kantuen bitartez, musikaren bidez alegia, bere esanialk agertzea. Honela dio berak:

«Nere kantuen musika, neri teresgarri iruditzen zaidan ideien eta sentimenduen zerbitzuan egi na da. Nere kantuek eta konposizioek baliorik badute, musikari belno gehiago zor diote musikari-

ren bidez ematen den esanahiari eta idelari...»

Donostiko EDIGSA etxeak izan da euskal disko interesgarri hau argitaratu eman duena. Inñaki Beobide jaunak grabazioak bere gain izan ditu. Musika denda guzietan salgai dago. Eun ta amar pezetako balioa du.

## Belloc-eko «Notre Dame» Abatetxeok Abade Nagusi berria

Belloc-eko Abatetxea lpar aldeko Euskal Herrian da. Laburdi herrialdean. Abadia, edo Abatetxe honek badu bere izena bai Euskal Herrian, bai Frantzia guzian eta baita Mundu guziko katolikoko misioetan ere. Gure Euskal Herriari dagokionez Errelijio Katolikoaren gauzetaz gainera, euskerari eta euskal kulturari buruz egiten duten lanak oso txaloga-

riak dira. Abatetxe honen Aita Jean Pierre Inda ogei ta bi urtean Abade Nagusia, Burua, izana da eta orain pentsatu du ainbeste urtez izan eskertze bere toki esku gazteagoetan uztea denen onerako.


Belloc-eko Pralleek Aita Xabier Diharce Abadia honen Abadea hemendik aurrera izateko izendatu dute.

Joan berri den Martxoko ogei ta batgarrenean (1972-3-21-ean) Belloc-eko Notre Dame Abatetxeok Elizan Baiona'ko Jaun Apezpikuak Aita Xabier Diharce Abade berri benediktoitu zuten; Benito Sainduaren egunean alegia. Pozez beterik berri hau zabaltzen dut zergatik gure txit exaguna den Aita Diharce balio haundiko gizona bait da, euskal poeta ezin parekoa, euskal Akademikoa eta euskaltzale zintzo eta jatorra, Euskal Herri guzian aunitz mailatzen duena. Hemen Nafarroan oso ezaguna eta maitea da. Zorionak biotzez.

## «Euskal Meza» Iruñean

### Erramu igandean

Datorren igandean, Martxoko 26 egunean (Erramuko igande) Iruñeko «Gayarre» Teatron goizko amaika 10'ertan «Euskal Meza» berri bat izango da. Aste Sainduaren lehenengo eguna oso



egokita da «Euskal Meza» berri hau Iruñeko jendeari ezagunerazteko.

Urrungo igandean ezaguneraziko den «Euskal Meza» hau oso famatua da. Aita Barturen izan da bere sortzailea eta egilea. Abenduko lehen «euskal orri»

«Euskal Meza» honen berri a k eman nituen. Orain Iruñeko semeek aparteko era izaten dugu entzuteko.

«Euskal Meza» hontan Euskal Herri guziko soinu, musikataria, abotsak, bertsoariak eta dena azaltzen dira. «Euskal Meza»

gainera Oberena Elkargoa eta n dantzariak, eta Chantrea'ko kantari ariko dira.

Ikusgarria benetan izango da eta uste dugu Iruñeko herriak aurpegi on eta goxoa jarriko dio.

IKUSLE

## AXULAR SARIA LAGUN ONA NUEN NIK

Nik banuen behin... begiretze, iluntsu bet; baña ezagutzen on ona zuen gaizkoak. Etxuen gizonen ezagutzen bezalakoak; ez; abere ezagutze argi bet zeuken buruen. Beti beti adiskide leiala nuen; Inotz nitez aspertzen etzena, bide luan ta bide ilaburuen, urte ari edo iruskie aiera, otzak kazkaraka ta beroekin atsankute eginez nola gaeuz, nik beti nauken bera yarrakizela. Xakurre zen. «Txurtzil» eman ginion izen bat, zer ematen ginion oharitu gabe gu; ta mundu guzietan hunkerin ezagutzen zuen. Erratzen ezizan hunen yabe zenik bertze atik ere. «Dik», «Bat», «Potxo», ta holakoak bai baziren; baña «Txurtzil» batto ere. «Txurtzil» katuekin ere ediskide zen, ta hay gauz arrigarria da zakur batentzat; «Kattalin» ta «Kattaxuri» ganerako beren yendaki guzietan baten, nere xakurrekin piletzen ziren, ta haren berokire bilduek lotatzen ziren; maiz aski yaterakoa ere etziren xakur narekin asertzen; elkarrekin bai putzenak arro-arro «Fruite» te atzapar elkarri egiterano. «Eramankizun aundikoa zen gainera ta bakazeala utse.

Azkenera ahatik urteon bitxi yari zitzaiken gaizoa. Buruen pikxe bat ukitzea aski zuen bereala saingeka asteo. Zer ote zuen urrikalgarri harek? Bere bizitzen emaneko azken atsilakide Maiteri eskeniko hure izen zen. Ederki oroitzen naiz, nolako karrakle halareo Maiterena.

Bertze guzientzat prestu prestue zen egi puske heriotzera. Ilergi-zuri zagonen «au, au, au» Ilergieri ari zela uabatzen ginuen astronomutekin harat gan nai balu bezala. Arrikaldie betzuek hartue zen nik ezdakit zertaz.

Gaiko «Txurtzil», nik uau maite ta zu ere hil behar... —Ori jakin ba nau nik bi losak neronek eramango nituen. Dioni Pozueta eta bere lagunak.

## JENTILEN KONTUA

urdiñen bizi zian gizon ikaragarri aundiak: jentilak. Aitziberren, San Migel, San Juan eta San Pedron bizi zian. Ebein pilotia izaten zan arritzua eskutokilekin. Gaztaleko aitzaren puntan jentilien sukaldia dago.

Kanposantua ibiltzen zain San Pedron. Ermitan zeñ jentilain ezurrak.

Jentilak gosiek gartatu emen ziren, batere janik gabe, eta urdindarrak emen ziotela jana, eta gero Sarabeko dermiyua urdintarrendako eman zutela.

Urdingo iturri zarreko ari losa auidiek jentilak ekarrit emen dira; aitaik eta alabiek bizkarrien ekarri ta. Bidien eldu ziala alabiek esan zela:

—Aita, itxan pixka bat. Eta aitaik erantzun zela alabai: —Zer da itxana egitia? —Lurrien autzi eta pisatien egotia.

—Ori jakin ba nau nik bi losak neronek eramango nituen. Dioni Pozueta eta bere lagunak.

Urdiain.

# KONTU KONTARI ARTZANORRA

Artzai txakurrari «artzanorra» esaten zitzaion garai batean. Orai ere artzanora entzuten diegu Burundiko artzai zaharari. Ez ziren oraino artzai txakurrak: haundiak, baketsuak, zintzoak. Artaldean nun, artzanora han. Beti ardiñen inguruan odo ebein erdian.

Gaurko artzai txakurrak axeri kastakoak dira. Ibitzarrik, argiak, biziak. Bi ta hiru gizon baino gehiago da bakotza, ardiak larrazten. Hialek ez zuten lana hori egiten: ardiak zaindu bakarrik, otsoirik edo lapurririk baltzi.

Artzai batek ba omen zuen zakur hoietako zorangara. Nagusia gauz etxera etorri eta artzanok kasu egiten zian ardiñ. Biramonean artirin goxoekin egiten zion orea eta kitto. Hori zen txakurraren janaria.

Goiz batez, baditjona nagusia eta txakurra atera zala bidera. Aurreraxago etxeke bi edo hiru ardi hilaik. Asaratu dagoz eta uste izan du etxeke txakurrak bota dituela. Deltu ta, suturrik, artzanorra hil du. Egun hartako odol galitza eginik ba dijoa txabolala ardiarta ezala ezin sinestu du begiak ikusten dutena: otsoa Urbasan hila. Artzanoraren lana izan zen, eta biizierekin ordaindu zion nagusiak bere ekintza.

Bi besoak jaso ta sartzen omen ziren etxeke ordinar bat ikuzten zuten gizonarengana. Eta ardi galdurik baltzen ziren, hialek ardiarekin. Askotan esker txarra bereganatzen...

A. APAT ETXEBARNE